

AMIANTOA DUTEN MATERIALEN AURREAN ARRISKUA PREBENITZEA

AMIANTOA AURKI DEZAKETEN ETA
BAIMENIK EZ DUTEN LANGILEENTZAT

AURKIBIDEA

Aurkezpena
Eskuliburuaren helburuak
Nori zuzenduta dago?

A. Amiantoaren alderdi orokorrak

- Amianto motak
- Hauskortasuna
- Arriskutsua izateagatik debekatuta

B. Arreta-neurriak

- Babesteak
- Praktika egokiak

C. Non aurki dezakegu amianto?

D. Nola jokatu behar dugu?

E. Kasu praktikoak

Oinarrizko legeria

Bibliografia

AURKEZPENA

Amianto edo asbestoa da burdinazko, aluminiozko eta magnesiozko metasilikatoak biltzen dituen terminoa. Zuntz itxura izaten du.

Hitzen etimologiari erreparatzen badiogu, erraza izango zaigu ulertzea zergatik hedatu zen eraikuntzan: amianto eta asbestoa hitzak grezieratik datoz, ustelezina eta iraungiezina adierazten dute, hurrenez hurren. Izan ere, beste material batzuei gehitzerakoan ezaugarri fisiko-kimiko oso egokiak ematen dizkiogu; hala nola, erresistentzia mekanikoa, urradurarekiko erresistentzia, isolamendu termiko-akustikoa, eroankortasun elektriko baxua, erregaitza izatea eta agente kimikoekiko erresistentzia. Horrez gain, materiala ez da biodegradagarria.

Amianto manipulatzean, zuntz txikien gogortasunak amianto deskonposa dezake; hori dela eta, arnastu eta gure biriken barruan uzten dira, eta, denbora luzez egon ondoren, kalte larriak eragin diezazkiokete osasunari.

Hori dela eta, XIX. mendearen erdialdetik aurrera erruz erabili zuten industrian, eta ez eraikuntza-elementuetan soilik, 3.000 material baino gehiagotan erabili omen zen eta.

Gaur egun, herrialde gehienetan debekatuta dago amianto-zuntzak eta zuntz horiek dituzten produktuak nahita erabiltzea, ekoiztea eta merkaturatzea, eta langileak amianto duten materialen eraginpean egon daitezkeen mantentze eta deskontaminazio-jarduerak baino ez dira baimenduko, betiere segurtasun, prestakuntza, prebentzio eta babesneurri zorrotzak hartuta. Hala ere, egoera batzuetan, ustekabeen, amianto duten materialak daude, eta beharrezkoa da informazio egokia izatea egoera horri modu seguruan aurre egin ahal izateko.



HELBURUA

ESKULIBURUAREN HELBURUAK

- Material batek amianto daukala sumatuz gero, zer egin jakitea, eta amiantoaren eraginpean egoteko arriskua nola ekidin jakitea.
- Amianto daukaten kokaleku eta material potentzialak identifikatzea.
- Amianto daukaten materialekin (ADM -gaztelaniaz MCA-) lan egiteko ezagutu beharrekoa: Alderdi teknikoak eta dokumentu-eskakizunak.

NORI ZUZENDUTA DAGO?

AMANTOA MANIPULATZEKO BAIMENIK EZ DUTEN LANGILEEI zuzenduta dago eskuliburu hau, hau da, AMANTOA AURKI DEZAKETEN LANGILEEI, martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera (dekretu horren bidez, “amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu beharreko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dira”).

JARDUEREN ZERREDA EZ- ZEHATZA


Mantenu orokorreko langileak
Elektrikariak
Iturginak
Zurginak
Pintatzaileak/dekoratzaileak
Igeltseroak
Teilatugileak
Gas-instalatzaileak
Berogailu- eta klimatizazio-teknikariak
Alarma-jartzaileak eta suteen aurkako sistemen instalatzaileak
Arkitektoak/topografoak
Suntsiketa-adituak

A. AMIANTOAREN ALDERDI OROKORRAK

AMIANTO MOTAK

AMIANTO ZURIA

85%*




KRISOTILOA

- Krisolitoa.
- Silikatoen taldeko minerala da, Filosilikatoak azpitaldekoa eta horien barnean serpentina-kaolinita bat da.
- Itxura: zuntz mehe eta kurbatuak, malguak eta zeta-antzekoak.
- Azidoei aurre egiteko ez da egokia.
- Eraikuntzan gehien erabiltzen den materiala da.
- Gainerakoek baino toxizitate txikiagoa.

AMIANTO MARROIA

5%*




AMOSITA

- Grunerita.
- Zuntz-barietatea: Amosita. Silikatoen taldeko minerala, Inosilikatoak azpitaldekoa eta horien barruan anfibolen taldekoa da.
- Itxura: zuntz zuzenak eta luzeak dauzka, grisaxka edo arrexka kolorekoak.
- Azidoekiko erresistentea.
- Isolamendu termikoetan erabili ohi da.

AMIANTO URDINA


10%*



KROZIDOLITA

- Riebeckita
- Zuntz-barietatea: Krozidolita. Silikatoen taldeko minerala, Inosilikatoak azpitaldekoa eta horien barruan anfibolen taldekoa da.
- Itxura: zuntz zuzenak, luzeak eta finak dauzka. Urdinak edo urdin-berdexka kolorekoak dira.
- Azidoekiko oso erresistentea denez, zuntz-zementuzko hodiak egiteko eta suaren aurkako material gisa erabili zen.
- Hiruretatik haxe da toxikoena.

* Munduko produkzioa



HAUSKORTASUNA

Definizioa: Birrintzeko erraztasuna

Amiantoak 3600 aplikazio baino gehiago ditu. Hainbat sektoreetan erabili dute: eraikuntzan, industria petrokimikoan, industria nuklearrean, automobilgintzan, ontzigintzan, trenbideetan eta abarretan. Amiantoeko produktuak bi multzo handitan sailkatzen dira:

AMIANTO HAUSKORRA

Amianto ez dago nahastuta beste materialekin. Adibideak: suaren aurkako jantziak, suebaki-ateak, aire-ganberen betegarriak, zoruak, sabai faltsuak, hodian junturak eta abar.

Kasu honetan zuntzak erraz aska daitezke, ez daudelako beste material bati lotuta, eta horrek amianto-zuntzen eraginpean egoteko arrisku handiagoa dakar.


HAUSKORRA EZ DEN AMIANTOA

Amianto beste material batzuekin nahastuta dago, esate baterako zementuarekin eta kolarekin, fibrozementuarekin, binil-amiantoeko materialekin eta abar.

Honako toki hauetan aurki daitezke: nabeetako eta etxebizitzetako sabaietan, fatxadetan, barruko zoruetan, tximinietan, teilatuetan, loreontzietan, hodian eta ur biltegietan besteak beste.

Material EZ-hauskorra hondatuta ez badago eta material horri ezer egiten ez badiogu, amianto-zuntzen eraginpean egoteko arrisku gutxiago dago.





Jarraian, hauskorrak eta hauskorrak ez diren materialak ikusiko ditugu. Eta gai horien erabileraren berri ere izango dugu:

MATERIAL HAUSKORRAK	
Materiala	Erabilera
Proiektatutako estaldura (%85 amiantozkoa izan daiteke)	Isolamendu termikoa eta akustikoa, eta suaren nahiz kondentsazioaren aurkako babesa
Bero-isolatzailerak eta paketatzeak (%1etik %100ra arteko amiantoa izan dezakete)	Galdaren isolamendu termikoa, fluidoaren kanalizazioak tenperatura altuetan eta beste batzuk
Amiantozko ohol isolatzailerak (%16tik %40ra arteko amiantoa izan dezakete)	Suaren aurkako babesa, isolamendu termikoa nahiz akustikoa, eta eraikuntza-lanak oro har
Hainbat gai egiteko ehunak. Mantak, koltxoak, suaren aurkako zapiak, eskularruak, amantalak, lan-jantziak eta abar egiteko ehunak (%100 amiantozkoak izan daitezke)	Galdategiak, laborategiak, sukaldeak, antzokiak, etab



HAUSKORRAK EZ DIREN MATERIALAK

Materiala	Erabilera
Fibrozementua (%10-15 arteko amianto)	Estalkietarako, zisternetarako eta gordailuetarako txapa izurtua, eta presio-hodiak hainbat erabileratarako (edateko uraren sareak, deposituak, zisternak, zorrotenak, lorategiak, etab)
Asfaltozko oihalak -amianto eta betuna nahastuta- (gutxi gorabehera %5eko amianto)	Teilatu erdi zurrunak, teilen azpian iragazgaitzak, junturak estaltzeko xaflak, hodien forruak, etab
Zoladuretarako materialak (%25 amianto izan daiteke)	Baldosa termoplastikoak, PVCzko zoladuretan oinarri gisa erabilitako amianto-papera
Plastiko indartuak (%5etik %10ra arteko amianto)	PVCzko panel plastifikatuak eta kanpoko estaldurak



ARRISKUTSUA IZATEAGATIK DEBEKATUTA

- Mota guztiak A1 kategoriako kantzerigeno gisa sailkatuta daude.
- Amianto-zuntzekiko esposizioa gaixotasun larri eta itzulezinekin lotuta dago, hala nola ASBESTOSIAREKIN, MESOTELIOMAREKIN, LARINGEKO MINBIZIAREKIN eta abar.
- Espainian, 2002ko ekainean ezarri zen debekua amiantoaren azkenengo barietatea, alegia krisotiloa, fabrikatzeko eta merkaturatzeko.
- Gaur egun, arriskutsuak dira batez ere amiantoaren egon daitekeen instalazioak eta eraikinak eraberritzeko, konpontzeko eta eraisteko lanak:
 - Amiantoaren kentzea (fibrozementua, bero-isolatzaileak eta proiektatutako amiantoak).
 - Eraikinak eraistea.
 - Konponketak eta desegiteak (ontzigitza, trenbidea, automozioa, aeronautika, etab).
 - Indusketak eta lur-mugimenduak (kontrolak gabeko zaborteak).
 - Hondakinak kudeatzea eta tratatzea.
 - Isolamendu termikoak eta akustikoak jartzea/mantentzea.
 - Ur kanalizatuak (kolektoreak) mantentzea.
 - Igeltserotza (eraberritzeko, birgaitzeko eta mantentzeko obrak).
 - Mantentze-lanak (elektrikariak, iturginak, arotzak, muntatzaileak/ instalatzaileak, etab.).

GOGORA EZAZU



AMANTOAREN OSO ARRISKUTSUA DA, OSASUNERAKO KALTEGARRIA DELAKO.

BERE ZUNTZ TXIKIAK GUK ARNASTEN DUGUN AIRERA JOAN DAITEZKE ETA, ONDOREN, GURE BIRIKIEN SAKONERAINO HEL DAITEZKE. HORREK KALTE KONPONEZINAK ERAGIN DITZAKE, ETA KASURIK LARRIENETAN, BAITA HERIOTZA ERE. BATZUETAN, ETSAI IKUSEZINA DEITU IZAN ZAIO; IZAN ERE, ZUNTZEK, ARNASEA HARTZEAN EZER IGERRI EZ ARREN, GAIXOTASUNAK ERAGITEN DITUZTE, BATEZ ERE BIRIKETAKOAK. BATZUETAN 10, 20, 30 EDO 40 URTE IGARO DAITEZKE GAIXOTASUNA AGERTU ARTE

BABESTEAK

Norbera babesteko ekipamendu bat aukeratu beharko da lan-egoera bakoitzari dagozkion arriskuak aztertu ondoren, esposizio-mailaren eta lan-prozeduren arabera. Amianto-educia duten materialak egon daitezkeela susmatzen bada, premiak aurreikusi beharko dira.


GORPUTZA ETA AZALA BABESTEAK

- Erabili eta botatzeko jantziak (txanodun buzoaren tankerakoak), hautsa sartzen uzten ez dutenak, egokienak dira amiantoak izan dezaketen materialak egon daitezkeen lekuetan lan egiteko. Laneko arropa babestutakoa izan behar da (CE ziurtagiria, III. kategoria, 4. mota, oso gomendagarria da), eta ehun edo material arin eta malgu batez egina egongo da, ahal den neurrian zuntzak itsastea eragotziko duena (adibidez: tratamendu antiestatikoa eta azalera leuna izango ditu) eta zuntzak barnera sartzea eragotziko du.
- Lana amaitzean, jantziak kendu egin behar dira obratik irtetean, amianto-zuntzak ez zabaltzeko lan eremuaren kanpoaldera. Jantzi horiek poltsa estanko batean gordeko dira, eta amiantoak daukaten hondakin gisa tratatuko dira.
- Beste alderdi ergonomiko batzuk ere kontuan hartu behar dira, hala nola, izerdia botatzeko gai izatea. Jantziak ukabiletan eta orkatiletan lotu behar dira, eta, gainera, kaputxa izan beharko dute. Tolesturak, irekidurak eta poltsikoak ahal den neurrian murriztuko dira. Oinetako babesak erabiltzeak aukera ematen du laneko botak babesteko.
- Obratik irteterakoan laneko eskularruak uraz behar bezala deskontaminatu ezin badira, amianto-hondakinekin batera kanporatuko dira.



ARNAS APARATUA BABESTEA

- Amiantoarekin kontaktuan dauden lanetarako, maskara motako aurpegi-egokigailuak erabiliko dira, profesionalek atxikitze mekanikoko iragazki-kartutxoak dituzten maskara motako aurpegi-egokigailuak erabiltzen dituzte, FFP3 motako maskara, ahal dela, iraupen laburreko lanetan (1-2 ordu) FFP3 motako maskara erabil daiteke. Erabili eta botatzeko maskara bat da, behin erabiltzekoa, eta lan bakoitzaren amaieran bota egin behar da. Maskara mota hori deformatu egin daiteke erabiltzen den bitartean, eta ihesak sor ditzake aurpegi-junturaren parean (nahiz eta P3 iragazketa-eraginkortasuna duen materialekoa izan).
- Istripu baten eraginez amianto-hautsaren kontzentrazioa oso handia bada, maskara motako aurpegi-egokigailuak soilik erabiliko dira, begiak ere babesteko eta begiak ez lausotzeko.
- Amianto-edukia duen materialarekin ustekabeko kontaktua izan daitekeela susmatzen bada, ekipo guztiak (erabili eta botatzeko ekipoak izan ezik) erabili ondoren, urez eta xaboiz garbitu behar dira, deskontaminatzeko. Garbiketa lantokian bertan egingo da, eta ezin bada, poltsa estanko batean eramango dira. Erabili eta botatzeko materialak amianto-hondakin gisa tratatu beharko dira.
- Iragazkiak behin baino gehiagotan erabil daitezke, gutxi azaldu badira, eta amianto-hondakinekin botako dira. Iragazkiaren kanpoaldea gainerako ekipoarekin garbitu beharko da obratik ateratzen den bakoitzean.



GOGORATU



EZ MANIPULATU INOIZ ZUNTZAK ERRAZ ASKATZEN DITUZTEN MATERIALAK. TEKNIKA ETA BABES BEREZIAK BEHAR DIRA HORIEK ARRISKURIK GABE MANIPULATZEKO. LAN HORI LANGILE ESPEZIALIZATUEK EGIN BEHAR DUTE, ALEGIA **AMIANTO ARRISKUA DUTEN ENPRESEN ERREGISTROETAN (RERA)** IZENA EMANDA DAUDEN ENPRESETAN LAN EGITEN DUTENEEK; ENPRESA HORIEK LAN-AGINTARITZAREN ORGANOETAN DAUDE, INSTALAZIO NAGUSIAK DAUDEN LURRALDEAREN ARABERA.

PRAKTIKA EGOKIAK



- Seinaleztatu amiantoa daukaten materialak, etiketa egokiaz.
- Ez apurtu, moztu eta zulatu materialak.
- Busti material susmagarriak.
- Beste pertsona batzuk sar daitezen edo egon daitezen saihestea.

PRAKTIKA DESEGOKIAK




- Materialak apurtzea, desmuntatzeko edo garraiatzeko, bolumena murriztuz.
- Era hauetara garbitzea: aire konprimatua, presiopeko ura edo zapi lehorrak erabiliz.
- Hautsa kentzeko xurgagailu konbentzionalak erabiltzea.
- Materialak mozteko abiadura handiko tresnak erabiltzea, hala nola zerra erradialak.

GOGORA EZAZU

AMANTOA MODU SEGURUAN MANIPULATZEKO PRAKTIKAK ETA PORTAERAK DESKRIBATU DIRA. HALA ERE, GOGORATU EZ ZAUDELA GAITUTA EZ BAIMENDUTA AMANTOA MANIPULATZEKO. BERAZ, **ZALANTZAN BAZAUDE ETA EZ BADAKIZU MATERIAL BATEK AMANTOA DAUKAN ALA EZ, HOBE DA PENTSATZEA BADAUKALA AMANTOA ETA HORREN ARABERA JARDUTEA: BABES EZAZU ZURE BURUA, SEINALEZTATU EREMUA, UREZTATU (AUKERA IZANEZ GERO) ETA EZ INOIZ MANIPULATU MATERIALA.**

AMANTOA MANIPULATZEKO PRESTAKUNTZA ETA GAIKUNTZA IZANEZ GERO BAKARRIK.

- Saiatu beti pieza osoak kentzen.
- Eskuzko tresnak soilik erabili.
- Babestu eremua plastikozko xafla batez eta kendu amaitutakoan.
- Manipulatzerakoan, saiatu ez dadila beste pertsonarik sartu edo egon.
- Polietilenoazko poltsa gogorrek edo antzekoak erabili, bertara sartzeko kendu beharreko piezak eta amianto-etiketarekin seinaleztatzeko*.



*Hori da 1406/1989 Errege Dekretuaren arabera normalizatutako amianto-etiketa

C. NON AURKI DEZAKEGU AMIANTOA?

Duela urte batzuk, 60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetan ohikoa zen amiantoaren erabilera. Oso isolatzaile ona eta oso maneigarria zen. Gainera, forma askotakoa eta material askotan aurki zitekeen.

Isolatzaile gisa erabiltzen zen tren-bagoietan, instalazio termikoetako turbinetan eta abar. Baina eraikuntzako erabilerarik ohikoena zen teilapeetan (uralita) jartzea, hodietan (fibrozementua) eta eraikinetako hormetan isolatzaile gisa erabiltzea (amianto-zuntzeko artileak eta mantak). Suaren aurkako materiala egiteko ere erabiltzen zen.



Tren-bagoietan



Teilapeetan



Hodietan



Isolatzaile gisa



Amianto-zuntzeko
mantak

BAZENEKIEN?


Zeramikazko elementuak eta metal-aleazio batzuk garestiak zirela eta, denbora luzez amianto asko erabili zen balazta-zapatetan eta enbrage-diskoetan, elementu horien funtzionamenduan temperatura handiei aurre egiteko egokia zelako.




AMANTOAREN IRUDIAK



ZUNTZ-ZEMENTUZKO
ESTALKIAK




ERAIKINEN FATXADAK



KANPOKO ESTALDURAK



HIRI-ALTZARIAK



UR-BILTEGIAK




UR-KANALIZAZIOAK




HODIEN ISOLAMENDUA




KEAK HUSTEKO HODIAK




AIREZTAPEN-HODIAK




BALDOSAK



JUNTURAK




TXIMINIA ZIGILATZEKO
SOKA




SABAI AIZUNAK



TEILATUETARAKO
FELTROA



ASFALTOZKO OIHALAK



BERO-ISOLATZAILEAK
ETA SUAREN AURKAKO
BABESAK



PROIEKTATUTAKO
AMANTOAK

D. NOLA JOKATU BEHAR DUGU?

JARDUERAK

ZURE SEGURTASUNERAKO JARDUERAK ETA GOMENDIOAK

ADM non aurki dezakegun argi dugunean, ikus dezagun nola jokatu.

- 1 Edozein lanetan argi eduki behar dugun lehenengo gauza: material batek amianto daukan ala ez zalanza badugu, amianto balu bezala jokatu dugu.
- 2 Gutxienez, erabili eta botatzeko hautserako maskara batekin babestuko gara (FFP3 motakoa), ingurua etiketatu eta seinaleztatu egingo da, amianto manipulatu gabe, eta amianto kentzen espezializatutako enpresa batek jasoko du materiala.
- 3 Ez dugu putz egin behar, eskobatu edo deskonposatu behar ADM, arnasteko moduko zuntzak sor gaitzake eta.
- 4 Amianto kentzeko beharrezkoa da RERAn inskribatutako enpresa izatea, prestatutako lagileak izatea eta ekipo egokia edukitzea.

BAZENEKIEN?

Amianto-arriskua duten enpresen erregistroa da RERA (registro de empresas con riesgo por amianto). Erregistro horretan izena emanda egon behar dute amianto daukaten materialak kentzeko lanak egiten dituzten enpresa guztiak. Gainera, lan-agintaritzak onartutako lan-plan bat izan behar dute jarduketa bakoitzerako.



AMIANTOA ZUEK EZ KENTZEKO ARRAZOTIAK

- Ez zaudete ez prestatuta ez baimenduta ADM kentzeko; gainera, zuen enpresa ez dago RERAn inskribatuta, eta horrek zigor larriak ekar ditzake, segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik.
- Zer egingo zenuke amiantozko xafla horrekin? Zaborrontzira bota besterik gabe? Indarrean dagoen araudiak dio ADM guztiak isolatu egin behar direla zigilatuta, etiketatuta eta behar bezala bilduta, inolako arriskurik eragin gabe.
- Kasu horretan, gainera, zuentzako arriskua ere handia izango litzateke. Xafla hori kolpatuz edo zatituz zuntzak sor daitezke (gogoratu, gainera, ia ikusezinak direla). Norbaitek horiek arnastuko balitu, arazoak izan ditzake arnasa hartzeko, eta hori sarritan gertatuz gero, asbestosia etor daiteke.
- Gainera, sortutako hondakinak prozesatzerakoan edukiontzi batera botatzen badira, arriskua dago zuntzak sortzeko eta prozesu horretan parte hartzen duten langileei modu berean eragiteko, baita zabortegian biltzerakoan ere.



ERA BEREAN, EURI-URA GAI DA ZUNTZAK GARRAIATZEKO, ETA ZUNTZ HORIEK, JAKINA, URA KUTSATUKO LUKETE



HORI GERTATUKO BALITZ ETA XAFLA HORI NONDIK ATERA DEN ZEHATZUKO BALITZ, ARAZO LARRIA IZAN ZENEZAKETE BAI ZUEK, BAI ENPRESAK, PERTSONEI ETA INGURUMENARI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

EGOERA PRAKTIKOAK

NOLAKO NEURRI OROKORRAK HARTU BEHARKO GENITUZKE KONTUAN?

1. Egoera



3 solairuko eraikina, eraitsi beharrekoa

ADM egonez gero, baimendutako enpresa batek kendu beharko lituzke hondakinak. Kendu ondoren, normaltasunez lan egin, materialak gehiegi zatitu gabe, etengabe ureztatuz eta badaezbadako materiala ikusiko bagenu (sabaia, hodiak, xafla isolatzaileak eta abar), gelditu lana eta eman egoeraren berri.

2. Egoera



Bezero baten nabea, bertan 70eko hamarkadako turbina bat eta gas-labe bat konpondu behar dugu

Jabeak berak jakin behar du amiantoa dagoen ala ez, eta berak bermatu behar dizkigu lan-baldintza seguruak. Enpresa Jardueren Koordinazioa gauzatu beharko litzateke.

3. Egoera




Galdategi batean ari gara lanean. Urtu beharreko txatarraren artean enbrage-disko zaharrak eta kamioien nahiz traktoreen balazta-diskoak ikusten ditugu

Ez sartu txatarra hori labean (amiantoa transferentziarik gerta ez dadin). Arduradunari esan egiazta dezala txatarraren jatorria, eta jarraibidea ziurta diezagula.

GINARRIZKO LEGERIA

- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa. (1995eko azaroaren 10eko BOE, 269. zk.).
- 396/2006 Errege Dekretua, martxoaren 31koa, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu beharreko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen. (2006/04/11ko BOE, 86. zk.).
- 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa. (2011/07/29ko BOE, 181. zk.).
- 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-lanetarako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen. (1997/10/25eko BOE, 256. zk.).
- 2001eko abenduaren 7ko AGINDUA, azaroaren 10eko 1406/1989 Errege Dekretuaren I. eranskina aldatzen duena. Dekretuak substantzia eta prestakin arriskutsu jakin batzuk merkaturatzeko eta erabiltzeko mugak ezartzen ditu. BOE, 299. zk., 2001-12-14koa (Espainian amiantoaren debekua).
- 1907/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko abenduaren 18koa, substantzia eta prestakin kimikoen erregistroari, ebaluazioari, baimenari eta murrizketari buruzkoa (REACH), Substantzia eta Prestakuntza Kimikoen Europako Agentzia sortzen duena. EBAO L 396, 2006/12/30ekoa (eta ondorengo aldaketak) (XVII. eranskina, murrizketa, 7. eranskina).
- MAM/304/2002 Agindua, otsailaren 8koa, hondakinak balorizatzeko eta ezabatzeko eragiketak eta hondakinen Europako zerrenda argitaratzen dituen. (2002ko otsailaren 19ko BOE, 43. zk.).
- 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntza- eta eraipen-hondakinen



BIBLIOGRAFIA

- Gida teknikoak, amiantoaren eraginpean egotearekin lotutako arriskuak ebaluatzeko.
- Osalan amianto-gida. 2008ko 2. edizioa.
- ISSGA alerta, amiantoa egon daiteke. Xunta de Galicia 2016.
- Etxebizitzetan amiantoa duten materialak: gida praktikoa (I). Prebentziorako ohar teknikoak, 1006.
- Etxebizitzetan amiantoa duten materialak: gida praktikoa (II). Prebentziorako ohar teknikoak, 1007.
- Amiantoa duten materialak: amianto-binilozko zoladurak. Prebentzio-teknikak, 1009. zk